



TECNALIA, zibersegurtasunaren maila guztietako saiakuntzak egiteko akreditazioa lortu duen lehen erakunde nazionala

Ikerketa eta garapen teknologikoko zentroak ENACen (Egiaztatze Erakunde Nazionala) akreditazioa lortu du, nazioarteko IEC 62443-4-2 arauaren arabera industria segurtasun-maila handiengan ziurtatzeko.

2025eko ekainak 30. TECNALIA ikerketa eta garapen teknologikoko zentroa izan da ENACek (Egiaztatze Erakunde Nazionala) akreditatu duen lehen erakunde nazionala IEC 62443-4-2 nazioarteko arauaren arabera segurtasun-maila guztietan zibersegurtasun-saiakuntzak egiteko,. Automatizazio eta kontrol industrialeko sistemak babesteko oinarrietako bat da arau hori, eta zibersegurtasuneko baldintza tekniko zorrotzak ezartzen dizkie sistema horietako osagaiei. Akreditazioak aitortzen du laborategiak gaitasun teknikoa duela produktu horiek ebaluatzeko gero eta sofistikatuagoak diren mehatxuen aurrean.

Hala, TECNALIAk arauak ezartzen dituen lau segurtasun-mailetan saiakuntzak egiteko akreditazioa lortu du, eta, horri esker, mehatxu zuzenduetatik babesteko eskakizun handiagoak dituzten inguruneei erantzuna eman diezaieke. Ondorioz, laborategia erreferentzia da estatuan eta nazioartean industria-osagai kritikoaren ebaluazioan.

IEC 62443-4-2 arauak osagai industrialen zibersegurtasun-baldintzak ezartzeko esparru zehatz eta eskalagarri bat eskaintzen du, hala nola gailu txertatuak, aplikazio-softwarea eta sareko gailuak, eta horiek mehatxu ugarien aurka babesteko balio du. Baldintza horiek lau segurtasun-mailatan egituratzen dira, ustekabeko mehatxuetatik hasita baliabide esanguratsuak dituzten aurkariak egindako eraso sofistikatuetaraino babesteko. Maila batetik bestera, zorrotzu egiten dira bete beharreko neurri teknikoak: sistema gotortzea, roletan oinarritutako sarbide-kontrola, gertaeren erregistro segurua, zifratze sendoa eta osotasuna eta benetakotasuna baliozkotzea.

“Akreditazio horrek Europako abangoardian kokatzen gaitu zibersegurtasun industrialaren ebaluazioari dagokionez. Konfiantzazko bermea da fabrikatzaileentzat, integratzaileentzat eta azpiegitura kritikoaren operadoreentzat. Zalantzarik gabe, funtsezko aurrerapena da industria-ingurune seguruagoak sustatzeko, bai estatuan, bai nazioartean”, adierazi du Digital Labseko zuzendari eta TECNALIAko Zibersegurtasuna Ebaluatzeko Laborategiko arduradun Marta Castrok.

Funtsezkoa da industria-ingurune seguruagoak sustatzeko, bai Espainian, bai nazioartean, eta merkatu globalaren eskakizunekin eta erregulazioekin (adibidez, Europako Ziberresilientzia Arauarekin) bat datorren ziurtapen-bide bat eskaintzen die enpresei.





TECNALIAri buruz

TECNALIA Espainiako ikerketa aplikatuko eta garapen teknologikoko zentro handiena da, Europako erreferentzia eta Basque Research and Technology Alliance-ko kide. Enpresa eta erakundeekin elkarlanean aritzen da, lehiakortasuna eta pertsonen bizi-kalitatea hobetzeko eta hazkunde jasangarria lortzeko. Horretarako, 1.500 lagunetik gorako lantalde bat dauka, ikerketa teknologikoaren eta berrikuntzaren bidez mundu hobearen eraikitzeko konpromisoa hartu duena. Horregatik, TECNALIAren ikerketak benetako eragina du gizartean, eta onurak sortzen ditu bizi-kalitatean eta aurrerabidean. Hauek ditu jardueraren nagusiak: fabrikazio adimenduna, eraldaketa digitala, trantsizio energetikoa, mugikortasun jasangarria, osasuna eta elikadura, hiri-ekosistema eta ekonomia zirkularra.

European Research Survey ERSk ospeari eta posizionamenduari buruz egindako azken azterketan (2022an egin da), TECNALIA lehen postuan ageri da I+G+Ban markak duen ospeari dagokionez.

Informazio gehiago:

Itziar Blanco: 681 27 34 64

